| | | |
|---|---|---|
| **JAUN/ANDRE HORI:** | | **EXCMO\A. SR.\A:** |
| Lehendakariak emandako jarraibideen arabera, eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 8.g) eta 20.1 artikuluekin bat etorriz, Gasteizen, Lehendakaritzako egoitzan, **2024ko ABENDUAREN 23an,** 09:30ean, egingo den bilerarako deia egiten zaizu. Sarbide telematikoa ere egongo da. Honako hau izango da | | De conformidad con las instrucciones recibidas del Lehendakari, al amparo de los artículos 8.g) y 20.1 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, convoco a V.E. a la reunión que se celebrará en Vitoria-Gasteiz, en la sede de Lehendakaritza, a las 09:30 horas del día **23 DE DICIEMBRE DE 2024**. Se dispondrá de acceso telemática, con el siguiente |
| **GAI-ZERRENDA** | | **ORDEN DEL DÍA** |
| Aurreko bileraren akta irakurri, eta, hala badagokio, onartzea. | 1 | Lectura y, en su caso, aprobación del Acta de la sesión anterior. |
| **LEHENDAKARITZA** | | **LEHENDAKARITZA** |
| Erabaki-proposamena, baimena ematekoa Gobernu Kontseiluaren 2024ko urriaren 29ko Erabakia aldatzeko. Erabaki horren bidez, zuzeneko dirulaguntza bat eman zitzaion Arizmendiarrietaren Lagunak Elkarteari, José María Arizmendiarrieta jaunaren funts bibliografiko eta dokumentalaren tratamendu digitala eta sailkapen automatikoa egiteko. | 2 | Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la modificación del Acuerdo de Consejo de Gobierno de 29 de octubre de 2024, de concesión de una subvención directa a Arizmendiarrietaren Lagunak Elkartea, para la realización del proyecto Gogoa-Tratamiento Digital y Clasificación Automática del Fondo bibliográfico y documental de D. José María Arizmendiarrieta. |
| Erabaki-proposamena, zuzeneko dirulaguntza ematekoa Nazio Batuen Koordinazio Humanitariorako Bulegoaren Sudanerako Funts Komun Nazionalari (CBPF-Sudan). | 3 | Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa al Fondo Común Nacional-Sudán de la Oficina de Coordinación Humanitaria de Naciones Unidas (CBPF-Sudán). |
| **KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA** | | **DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA** |

4

Erabaki-proposamena, Eusko Jaurlaritzari baimena ematekoa "Euskorpora - euskararen teknologia digitaletarako hizkuntza-datuak sortu eta kudeatzeko elkartean" eskubide osoko bazkide gisa sartzeko.

Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la incorporación del Gobierno Vasco como socio de Pleno Derecho en la "Asociación para la generación y gestión de datos lingüísticos para las tecnologías digitales del euskera - Euskorpora".

5

Erabaki-proposamena, Lekeitioko udalari urte anitzeko zuzeneko dirulaguntza ematekoa, Lekeitioko Hiribilduaren 700. urteurrenaren ospakizun-jarduerak antolatzeko, 2024-2025 epealdian.

Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa plurianual al Ayuntamiento de Lekeitio, para la organización de actividades de celebración del 700 aniversario de la Villa de Lekeitio, en el período 2024-2025.

## OGASUN ETA FINANTZA SAILA

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

6

Erabaki-proposamena, kreditu globala diruzaintzako gerakinen kontura zabaltzekoa, 5.000.000 euroko zenbatekoarekin, Segurtasun Sailak 2024ko ekitaldian dituen kreditu-beharrizanei aurre egiteko Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzaren meteorologia-arloko inbertsioak finantzatzeko.

Propuesta de Acuerdo de ampliación de Crédito Global con cargo a Remanentes de Tesorería, por importe de 5.000.000 de euros, para atender las necesidades crediticias del Departamento de Seguridad en el ejercicio 2024, al objeto de financiar inversiones en el área de meteorología de la Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología.

7

Erabaki-proposamena, zenbait sailetan funtzionarioen 14 dotazio sortzeko baimena ematekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2024ko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 22ko 21/2023 Legearen 13.4 artikulua aplikatuz.

Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la creación de 14 dotaciones de personal funcionario en diversos departamentos, en aplicación del artículo 13.4 de la Ley 21/2023, de 22 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2024.

8

Erabaki-proposamena, doako erabilera-lagatze-hau luzatzekoa: Azti Fundazioaren aldekoa, Sukarrietako Txatxarramendi uharteko Ikerketa Zentro Teknologikoa kokatuta dagoen higiezinarena.

Propuesta de Acuerdo de prórroga de la cesión de uso gratuita a favor de la Fundación Azti/Azti Fundazioa, del inmueble en el que se ubica el Centro Tecnológico de Investigación, sito en la isla de Txatxarramendi, de Sukarrieta.

## GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA

## DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA, ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y AUTOGOBIERNO

9

Lege-aurreproiektua, Colegio Oficial de Criminología de Euskadi-Kriminologiaren Euskadiko Elkargo Ofiziala izeneko elkargoa sortzekoa.

Anteproyecto de Ley de creación del Colegio Oficial de Criminología de Euskadi-Kriminologiaren Euskadiko Elkargo Ofiziala.

| | | |
|---|---|---|
| Dekretu-proiektua, zeinaren bidez onartzen baita Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoaren erabakia, itsasbazterra antolatzearen eta kudeatzearen arloko Estatuko Administrazioaren eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzekoa. | 10 | Proyecto de Decreto por el que se aprueba el Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias Estado-Comunidad Autónoma del País Vasco, de traspaso a la Comunidad Autónoma del País Vasco de las funciones y servicios de la Administración del Estado en materia de ordenación y gestión del litoral. |
| Dekretu-proiektua, zeinaren bidez onartzen baita Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoaren erabakia, irailaren 26ko 3069/1980 Errege Dekretuaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatu zitzaizkion Estatuko Administrazioaren eginkizunei beste batzuk gehitzeko, gai hauetan: kultura arloko fundazioak eta elkarteak, liburuak eta liburutegiak, zinematografia, musika eta antzerkia, gazteria eta sustapen soziokulturala, ondare historiko-artistikoa eta kirolak. | 11 | Proyecto de Decreto por el que se aprueba el Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias Estado-Comunidad Autónoma del País Vasco, de ampliación de funciones de la Administración del Estado traspasadas a la Comunidad Autónoma del País Vasco por el Real Decreto 3069/1980, de 26 de septiembre, en materia de fundaciones y asociaciones culturales, libro y bibliotecas, cinematografía, música y teatro, juventud y promoción sociocultural, patrimonio histórico-artístico y deportes. |
| Erabaki-proposamena, aintzat hartzekoa Itelazpi SA sozietate publikoarekin sinatutako laguntza juridikoaren hitzarmena. | 12 | Propuesta de Acuerdo de toma en conocimiento del Convenio de asistencia jurídica suscrito con la Sociedad pública Itelazpi, S.A. |
| Erabaki-proposamena, aintzat hartzekoa Alokabide SA sozietate publikoarekin sinatutako laguntza juridikoaren hitzarmena. | 13 | Propuesta de Acuerdo de toma en conocimiento del Convenio de asistencia jurídica suscrito con la Sociedad Pública Alokabide, S.A. |
| Erabaki-proposamena, onarpena ematekoa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan jarduera sindikala finantzatzeko 2023. urterako laguntzaren banaketari. | 14 | Propuesta de Acuerdo por el que se aprueba la distribución de la ayuda para la financiación de la actividad sindical en la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el año 2023. |
| Erabaki-proposamena, onarpena ematekoa Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea SA sozietate publikoaren aldeko mandatuari, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako informazioaren eta komunikazioaren teknologien zerbitzu errepikariak betetzekoari, bai eta horien kontraprestazio ekonomikoei ere. | 15 | Propuesta de Acuerdo por el que se aprueba el encargo a la sociedad pública Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea - Sociedad Informática del Gobierno Vasco, S.A., para la cobertura de los Servicios de Tecnologías de la Información y la Comunicación recurrentes de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos, así como sus contraprestaciones económicas. |
| Eduki ekonomikoa duten agindu eta ebazpenen zerrenda, Gobernu Kontseilua jakinaren gainean egon dadin. | 16 | Relación de órdenes y resoluciones con contenido económico para conocimiento del Consejo de Gobierno. |

## INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

## DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y SOSTENIBILIDAD

Dekretu-proiektua, zeinaren bidez Energiaren Euskal Erakundeari baimena ematen baitzaio CADEM - Energia eta Meatzeen Aurrezte eta Hazkuntzarako Aztertegia SA sozietatearen kapital-zabalkuntzan parte har dezan, eta baimena ematen baitzaie, orobat, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Instituzionalaren zuzeneko edo zeharkako titulartasuneko akzioen ordezkariei onespena eman dezaten sozietate horren estatutuen 5. artikulua aldatzeko.

17 Proyecto de Decreto por el que se autoriza al Ente Vasco de la Energia la toma de participación en la ampliación de capital de la sociedad Centro para el Ahorro y Desarrollo Energético y Minero, S.A. - CADEM y se autoriza a las personas representantes de las acciones titularidad directa o indirecta de la Administración General e Institucional de la Comunidad Autónoma de Euskadi a prestar su conformidad a la modificación del artículo 5 de los estatutos sociales de dicha sociedad.

Erabaki-proposamena, baimena ematekoa Uraren Euskal Agentziarekin 2022ko uztailaren 29an sinatutako lankidetza-hitzarmena aldatzeko bigarren gehigarria izenpetzeko, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean jasotako jarduketen esparruan.

18 Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la suscripción de la segunda Adenda de modificación del Convenio de colaboración, suscrito el 29 de julio de 2022, con Uraren Euskal Agentzia-Agencia Vasca del Agua, en el marco de las actuaciones incluidas en el Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia.

## ETXEBIZITZA ETA HIRI AGENDA SAILA

## DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y AGENDA URBANA

Dekretu-proiektua, zeinaren bidez premiazko deklaratzen baita Andoaingo Udalak honako eskubide eta ondasun hauek okupatzea, nahitaez desjabetzeko: Andoaingo Ziako errekaren saneamendu eta ubideratze proiektuaren 1. faseak ukitutako ondasun eta eskubideak.

19 Proyecto de Decreto por el que se declara de urgencia la ocupación por el Ayuntamiento de Andoain, a efectos de expropiación forzosa, de los bienes y derechos afectados por proyecto de encauzamiento y saneamiento de la regata Ziako de Andoain. Fase 1, en el municipio de Andoain.

Erabaki-proposamena, aintzat hartzekoa Inversiones Urdiales SL Unipersonal entitatearekin sinatu beharreko hitzarmena, babes sozialeko 143 etxebizitza eta horien eranskinak sustatzeko alokairu-erregimenean, alokairu eskuragarriko modalitatean.

20 Propuesta de Acuerdo de toma en conocimiento del Convenio a suscribir con la entidad Inversiones Urdiales, S.L. Unipersonal, para la promoción de 143 viviendas de protección social y sus anejos en régimen de arrendamiento en la modalidad de alquiler asequible.

Erabaki-proposamena, 5.000.000 eurotik gorako gastu-kontratua baimentzekoa, Bilboko (Bizkaia) Iturrigorri-Gardeazabal 743.01 egikaritze-unitatean babes sozialeko 84 etxebizitza eraikitzeko obretarako.

21 Propuesta de Acuerdo de autorización de un contrato de gasto superior a 5.000.000 de euros, para las obras de construcción de 84 Viviendas de protección social en la unidad de ejecución 743.01 Iturrigorri-Gardezabal, en Bilbao (Bizkaia).

Erabaki-proposamena, baimena ematekoa Gobernu Kontseiluaren 2017ko azaroaren 28ko Erabakia laugarren aldiz aldatzeko. Erabaki horren bidez, zuzeneko dirulaguntza bat eman zitzaion Eibarko Udalari, Eibarko udalerriko Txonta auzoan hiri-berroneratzeko eta eraikinak birgaitzeko.

22 Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la cuarta modificación del Acuerdo de Consejo de Gobierno de 28 de noviembre de 2017, de concesión de una subvención directa al Ayuntamiento de Eibar, para la actuación de regeneración urbana y rehabilitación de edificios en el barrio de Txonta, en el municipio de Eibar.

**ONGIZATE, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA**

**DEPARTAMENTO DE BIENESTAR, JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO**

Erabaki-proposamena, baimena ematekoa Vitoria-Gasteizko Udalarekin lankidetza-hitzarmena izenpetzeko, gazte-emantzipazioa bultzatzeko proiektu-pilotu bat garatzeko, gazteen parte-hartzearekin.

23 Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la suscripción de un Convenio de colaboración con el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, para desarrollar un proyecto piloto de impulso a la emancipación juvenil con la participación de las y los jóvenes.

Erabaki-proposamena, baimena ematekoa Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundearekin (HABE) sinatutako lankidetza-hitzarmenaren 2025eko luzapena sinatzekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 16 urtetik gorako etorkinentzako euskarazko hizkuntza-harrerako ikastaroak finantzatzeko.

24 Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la suscripción de la prórroga, para 2025, del Convenio de Colaboración suscrito con el Instituto de Alfabetización y Reeuskaldunización de Adultos (HABE), para la financiación de los cursos de acogida lingüística en euskera dirigidos a las personas inmigrantes mayores de 16 años con residencia en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Erabaki-proposamena, Eusko Jaurlaritzaren ordezkari bat izendatzekoa haur-eskolen kudeaketarako eta hiru urtetik beherakoen asistentzia- eta hezkuntza-arretarako Haurreskolak Partzuergoko Batzar Orokorrerako eta Zuzendaritza Batzorderako.

25 Propuesta de Acuerdo de nombramiento de un representante del Gobierno Vasco para la Asamblea General y el Comité Directivo del Consorcio Haurreskolak para la gestión de las escuelas infantiles y la atención asistencial y educativa a menores de tres años.

Erabaki-proposamena, zuzeneko dirulaguntza ematekoa Bilboko Elizbarrutiko Caritasi, Loiolaetxea Elkarteari, Alboan Fundazioari eta Ignacio Ellacuria Gizarte Fundazioari, babes komunitarioko programa garatzeko.

26 Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a Cáritas Diocesana de Bilbao, Asociación Loiolaetxea, Fundación Alboan y Fundación Social Ignacio Ellacuría, para el desarrollo del programa de patrocinio comunitario.

**MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN SAILA**

**DEPARTAMENTO DE MOVILIDAD SOSTENIBLE**

Erabaki-proposamena, aintzat hartzekoa Euskadiko Mugikortasun Jasangarriaren Planaren oinarrizko dokumentua.

27 Propuesta de Acuerdo de toma en conocimiento del documento base del Plan de Movilidad Sostenible de Euskadi.

**ZIENTZIA, UNIBERTSITATE ETA BERRIKUNTZA SAILA**

**DEPARTAMENTO DE CIENCIA, UNIVERSIDADES E INNOVACIÓN**

28

Dekretu-proiektua, Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.

Proyecto de Decreto por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Ciencia, Universidades e Innovación.

29

Erabaki-proposamena, 20.531.750,45 euroko gastu-gehikuntza baimentzekoa, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen ekarpen arrunta handitzeko, ekarpen horri egotz dakizkiokeen gastuetan sortutako egiturazko premiei aurre egiteko.

Propuesta de Acuerdo de autorización de un incremento de gasto por importe de 20.531.750,45 euros, para aumentar la aportación ordinaria de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, para hacer frente a las necesidades de carácter estructural generadas en los gastos imputables a la aportación ordinaria.

**TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA**

**DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO**

30

Erabaki-proposamena, 2021., 2022. eta 2023. urteetarako zenbait erakunderekin sinatutako hitzarmenak aldatzeko gehigarria baimentzekoa. Hitzarmen horiek Euskadiko helmugako turismo-jasangarritasuneko lurralde-planei buruzko Turismo Jasangarritasuneko Plana gauzatzeko dira, Europar Batasuneko Next Generation EU funtsek finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan.

Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la Adenda de modificación de los convenios suscritos con diversas entidades, correspondientes a las anualidades 2021, 2022 y 2023, para la ejecución del Plan de Sostenibilidad Turística en Destino relativos a los planes territoriales de sostenibilidad turística en destino de Euskadi, enmarcados en el Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, financiado por los fondos de la Unión Europea-Next Generation EU.

**ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA**

**DEPARTAMENTO DE ALIMENTACIÓN, DESARROLLO RURAL, AGRICULTURA Y PESCA**

31

Erabaki-proposamena, finantza-lankidetzarako hitzarmen hau luzatzeko baimena ematekoa: Finantzen Euskal Institutuarekin eta hainbat finantza-erakunderekin izenpetutakoa, inbertsioak finantzatzeko lerro bat eratzeko nekazaritzaren, basogintzaren, arrantzaren, elikagaien eta landa-garapenaren sektoreetan (Sendotu programa 2023/2024).

Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la prórroga del Convenio de colaboración financiera suscrito con el Instituto Vasco de Finanzas y diversas entidades financieras, para la instrumentación de una línea de financiación de inversiones en los sectores agrario, forestal, pesquero, alimentario y de desarrollo rural (Programa Sendotu 2023/2024).

Erabaki-proposamena, hitzarmen hau aldatzeko eta luzatzeko bigarren gehigarria baimentzekoa: Nekazaritza Bermatzeko Espainiako Funtsa OAk, Europako Itsas eta Arrantza Funtsaren (FEMP) ziurtapen-agintaritza den aldetik, Euskal Autonomia Erkidegoari, ziurtapeneko bitarteko organismo den aldetik, eginkizun jakin batzuk kudeatzeko ardura ematen diona.

32 Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la segunda Adenda de modificación y prórroga al Convenio por el que el Fondo Español de Garantía Agraria O.A., en calidad de autoridad de certificación del Fondo Europeo Marítimo y de la Pesca (FEMP), encomienda a la Comunidad Autónoma del País Vasco para la gestión de determinadas funciones, en su condición de organismo intermedio de certificación.

**JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEEN SAILA**

**DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y DERECHOS HUMANOS**

Erabaki-proposamena, baimena ematekoa lankidetza-hitzarmen hau luzatzeko: Portugaleteko Udalarekin sinatutakoa, Portugaleten deribazio judizialaren bidezko familia-elkarguneko zerbitzua kudeatzeko.

33 Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la prórroga del Convenio de cooperación suscrito con el Ayuntamiento de Portugalete, para la gestión del servicio de punto de encuentro familiar por derivación judicial en Portugalete.

Erabaki-proposamena, baimena ematekoa lankidetza-hitzarmen hau luzatzeko: Barakaldo Udalarekin sinatutakoa, Barakaldon deribazio judizialaren bidezko familia-elkarguneko zerbitzua kudeatzeko.

34 Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la prórroga del Convenio de cooperación suscrito con el Ayuntamiento de Barakaldo, para la gestión del servicio de punto de encuentro familiar por derivación judicial en Barakaldo.

Erabaki-proposamena, aintzat hartzekoa Berriztu Hezkuntza Elkartearekin sinatu beharreko lankidetza-hitzarmena, Bilboko autonomia-egoitzan adingabe eta gazteentzako egoitza-harrerako neurriak eta gizarteratze-neurriak betearazteko.

35 Propuesta de Acuerdo de toma en conocimiento del Convenio de colaboración a suscribir con la Asociación Educativa Berriztu, para la ejecución de las medidas de acogida residencial y reinserción social de menores y jóvenes en la residencia de autonomía de Bilbao.

**IZENDAPENAK ETA KARGU-KENTZEAK**

**NOMBRAMIENTOS Y CESES**

**LEGEBILTZAR-EKIMENAK**

**INICIATIVAS PARLAMENTARIAS**

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abenduaren 20a.

En Vitoria-Gasteiz, 20 de diciembre de 2024.

**IZPTA./FDO.: UBARRECHENA CID, MARIA.**
**GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUKO SAILBURU, JAURLARITZAREN IDAZKARI ETA BOZERAMAILEA**

Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria

El Lehendakari del Gobierno Vasco

**LEHENDAKARIAREN BAIMENA, GOBERNU KONTSEILUAREN 2024ko ABENDUAREN 23ko BILERA TELEMATIKOKI EGITEKO**

2022ko maiatzaren 24an, Gobernu Kontseiluak Erabaki bat hartu zuen, Gobernu Kontseiluaren bilera telematikoak puntualki egiteko jarraibideak onartzen dituena, eta erabaki horren arabera, beharrezkoa da lehendakariak, berariaz eta arrazoituta, bilera horiek telematikoki egitea baimentzea.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburua, Mikel Jauregi Letemendia, abenduaren 23an Euskaditik kanpo izango da; beraz, ezin izango da egun horretan Vitoria-Gasteizen egingo den Gobernu Kontseiluaren bilerara fisikoki bertaratu.

Aztergaien zerrenda ohikoa dela ikusita eta ebatzi beharreko gaiak kontuan hartuta, egokia da bilera telematikoa egitea, arestian aipatutako Gobernu Kontseiluaren Erabakian adierazitako baliabide teknikoak erabiliz.

Baimen honetan adierazitako baliabide teknikoek aukera ematen dute, bideokonferentzia bidez, irudia eta soinua bi noranzkoetan eta aldi berean komunikatzeko; eta hortaz, geografikoki urruti dauden bi pertsonaren edo pertsona-talderen arteko denbora errealeko ikusizko, entzunezko eta ahozko interakzioa izateko. Halaber, bermatu egiten dute eztabaidetan eta hausnarketetan askatasunez parte hartzea.

Baimen honetan adierazitako baliabide teknikoek modu egokian bermatzen dituzte, halaber, parte-hartzaileen identitatea eta segurtasuna, kanpoko interferentziarik ez egotea, esku hartzeko askatasuna eta eztabaiden izaera sekretua edo erreserbatua.

Hori horrela izanik,

**AUTORIZACIÓN DEL LEHENDAKARI PARA QUE LA REUNIÓN DEL CONSEJO DE GOBIERNO DE 23 DE DICIEMBRE DE 2024 SE CELEBRE DE FORMA TELEMÁTICA**

Con fecha de 24 de mayo de 2022 el Consejo de Gobierno adoptó un Acuerdo por el que se aprueban las directrices para la celebración puntual de reuniones telemáticas de Consejo de Gobierno, siendo necesario conforme al mismo que el Lehendakari autorice, de forma expresa y motivada, la celebración de dichas reuniones de forma telemática.

El Consejero de Industria, Transición Energética y Sostenibilidad, D. Mikel Jauregi Letemendia, estará fuera de Euskadi el día 23 de diciembre, fecha de la celebración del Consejo de Gobierno por lo que no podrá asistir físicamente a la reunión a celebrar en Vitoria-Gasteiz.

Dado el carácter ordinario del orden del día, y a la vista de los asuntos a resolver, procede realizar una reunión telemática utilizando los medios técnicos que se indican en el Acuerdo de Consejo de Gobierno antes referido.

Los medios técnicos indicados en esta autorización permiten, mediante videoconferencia, la comunicación bidireccional y simultánea de imagen y sonido y, por tanto, la interacción visual, auditiva y oral en tiempo real entre dos personas o grupos de personas geográficamente alejadas, garantizando la libre participación en los debates y deliberaciones.

Los medios técnicos indicados en esta autorización garantizan también de forma adecuada la identidad y seguridad de las personas participantes, la ausencia de interferencias externas, la libertad de intervención y el carácter secreto o reservado de los debates.

En su virtud,

Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria

El Lehendakari del Gobierno Vasco

HONAKOAK BAIMENTZEN DITUT

1.- Gobernu Kontseiluak 2024ko abenduaren 23an egingo duen bilera telematikoki egiteko baimena ematen dut, honako Baimen honetan adierazita dauden baldintzetan.

2.- Telematikoki konektatuko diren Gobernu Kontseiluko kideek ZOOM plataforma digitala erabili beharko dute; eta, horretarako, esteka honetan sartu beharko dute: https://euskadi.zoom.us/j/95646413040

3.- Honako baimen hau bilkura-deialdiari eransteko baimena ematen dut, bilerari dagokion gai-zerrendarekin batera.

AUTORIZO

1.- Que la reunión del Consejo de Gobierno de 23 de diciembre de 2024, se celebre de forma telemática, en los términos expresados en la presente Autorización.

2.- Que las y los miembros del Consejo de Gobierno que se conecten telemáticamente, deberán de utilizar la plataforma digital ZOOM, accediendo al siguiente enlace: https://euskadi.zoom.us/j/95646413040

3.- Que la presente autorización se incorpore a la convocatoria de la sesión junto con el orden del día.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko abenduaren 17an.

IMANOL PRADALES GIL.

Imanol Pradales Gil 2024.12.17 13:43:48 +01'00'

Lehendakaria.